



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

IV. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**30 urte mihigintzan: 30 urte
euskararen biziberritzeari
ekarpena egiten**

Txerra Rodriguez

13-18 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.02.01>



30 urte mihigintzan: 30 urte euskararen biziberritzeari ekarpena egiten

Rodriguez, Tx.
txerra.rodriguez@gmail.com

Laburpena

80ko eta 90eko hamarkadetan sortu ziren euskara elkarteak. Orain arte gutxi ikertu izan dira, are gutxiago, mugimendu sozialen emaitzen kariatara. Lan honek aztertu nahi izan ditu euskara elkarteek euskararen biziberritzeari dagokionez lortu dituzten emaitzak, emaitza kultural zein politikoak, sustantiboak eta ukiezinak. Horrez gain, aurrera begirako proposamen praktikoak ere ekarri nahi izan ditu. Hori guztia egiteko, hainbat ahotsi eskatu zaio iritzia, euskara elkarteetan biran ibilitako jendearen polifonia dakar lanak, ikerketa aktibistaren galbahetik pasatu ostean.

Hitz gakoak: euskara elkarteak, mugimendu sozialak, euskararen biziberritzea.

Abstract

Basque associations were founded in the 80s and 90s. They have hitherto been little studied, much less studied, in relation to the results of social movements. This work sought to examine the results that the basque associations have achieved in relation to the revitalization of the basque language, cultural and political results, substantive and intangibles. He also wanted to bring forward practical proposals. In order to do all this, several voices have been asked for their opinion, the work involves the polyphony of the people who have toured Basque associations, after passing through the sieve of activist research.

Keywords: basque associations, social movement, revitalization of basque language

1. Sarrera

Euskal Herriko historia hurbilean euskara elkarteak izeneko artefaktuak sortu dira han-hemen, gure geografietako ehundik gorako herritan. Ahalegin kolektibo horrek euskararen beraren ibilbide historikoan eta biziberritze mugimenduan zer eragin, zer emaitza izan duen aztertu gura izan dut. Lau urteko prozesua izan da eta, akabuan, doktore-tesia egin eta 2020ko ekainean aurkeztu nuen.

Euskara elkarteak izan dira tokian-tokian sortu eta garatu diren artefaktuak. Toki-mailako fenomenoak izan dira eta dira elkarteak, herri bakoitzaren nortasunean eta egiteko moduetan zeharo txirikordatuak eta sustraituak. Hortaz, zeharo poliedrikoak izan dira elkarteek garatutako jardunbideak, zeharo polikromatikoak, nahiz eta, modu batera edo bestera, elkarte hauek guztiek mugimendu baten parte irudikatu euren burua (euskara elkarteetan mugimenduaren parte euskararen aldeko mugimenduaren barruan).

Sarrera honetan, dena den, beharrezkoa ikusten dut euskara elkarteak zer diren definitu. Honako hau dira, nire ustez, euskara elkarteak: tokian tokiko jendeak eratu dituzte, tokian tokiko egoeratik abiatuta. Euskara dute erdigunean elkarte hauek, euskaldunak dituzte erdigunean elkarte hauek. Funtzioak (berr)eskuratu nahi dituzte euskaldunentzat eta euskaldunak eroso egongo diren une eta gunek sortu. Gainera, autonomoak dira (edo izan gura dute) hiru arlotan gutxienez: arlo politikoan (alderdiei eta erakunde publikoei lotuta ez), arlo nazionalen (ez dira erakunde zentral baten adar; aitzitik, nazio mailako erakundea herrietatik abiatuta sortu eta elikatu da) eta arlo ekonomikoan. Eta, elkarteak diren heinean, egitura formalizatua dute (zuzendaritza batzordea, lan-taldeak, bazkideak eta, zenbait kasutan, langileak ere).

Hala ere, ikerketan zehar aztertu diren elkarteak izan dira, zelanbait, euren burua mugimendu baten parte irudikatu dutenak. Hau da, Topagunera federatuta ibili diren elkarteak.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Orain arte, gutxi ikertu da euskararen aldeko mugimendu sozialak zer ekarpen egin dion biziberritze prozesuari eta, are gutxiago, mugimendu horren barruan euskara elkarteek lortutakoa. Kontxesi Berrio-Otxoak honela zioen orain dela hogeitun urte baino gehiago: “Euskararen aldeko mugimendu sozialari buruz argitaratu diren lanean artean, oso gutxi dira idatzitako lan monografikoak eta, gainera, mugimenduaren militanteak beraiek idatzitako lanak dira gehienak, datu-bilduma eta iritzi-artikulu formakoak” (Berrio-Otxoa, 1998). Denbora pasa bada ere, egoera ez da aldatu funtsean. Oraindik ere oso bakanak dira lan monografikoak eta, are bakanagoak, militanteek idatzitakoak ez direnak (badira salbuespen batzuk, Ane Larrinagak ondutakoak, esaterako, Larrinaga, 2011, 2017a, 2017b, Larrinaga, Amurrio, 2016 edo Dabid Anautek egindako, Anaut, 2013). 90eko hamarkadan, baina, bai izan ziren ikerketak (ia guztiak aktibistek egindakoak, batez ere *Jazten* aldizkarian). Horrek bat egin zuen elkarteekin loraldiarekin eta eskatu zuen zelanbait lan teoriko eta praktikoa aurrera eramatea. 2000tik aurrera eta euskararen biziberritzeari loturiko ikerketa eta literatura zientifikoaren ez tandarekin kontraesanean, bakandu dira gai hauei buruzko lanak.

Gainera, kasu honetan gutxi begiratu ahal diogu nazioarteari. Izan ere, mundu mailan oso bakanak dira tankera honetako ezaugarriak dituzten mugimenduak. Izan ere, gutxi dira tokian toki garatu eta behetik gora eratutako mugimenduak. Baina dauden gutxi horiek ere ez dute inola ere gurean izan duten indar, hedadura, esperientzia eta sendotasunik. Eta, hortaz, horien inguruko ikerketa-lanak ere gutxi dira.

Ikerketaren helburu orokorra izan da euskara elkarteek 1987 eta 2017 urteen artean lortu dituzten emaitzak aztertzea, betiere erdigunea izanda elkarte horiek zer ekarpen egin dioten euskararen biziberritzeari. Hortaz, aztertu gura izan dut elkarteek zer emaitza kultural eta politiko lortu dituzten, baita jendartean zer erresonantzia lortu duten aztertu ere.

Horretara heldu ahal izateko eta kontuan hartuta gai honen inguruan egindako ikerketak gutxi direla, bestelako helburu zehatz batzuk jarri behar izan dizkiot neure buruari. Batetik, euskara elkarteek beren helburuak lortzeko erabili dituzten praktika, bitartekoak eta egiteko moduak aztertzea izan da helburu; bestetik, elkarteekin inguruko deskripzio orokorra egitea eta elkarteekin gainera teorizazioan sakontzea; eta, hirugarrenik eta azkenik, euskara elkarteak etorkizunari begira zer bide eta helburu jorratu beharko lituzketen zirriborratzea.

3. Ikerketaren muina

Ikerketaren muinera abiatu aurretik, ikerketara zelan hurreratu naizen azaldu gurako nuke. Izan ere, jakintza beti da kokatua (Haraway, 1995) eta, beraz, ikerketaren fidagarritasunaren izenean, ezagutza eta jakintza nondik sortzen den berariaz aipatu behar da. “Kokapen hibrido” (Emagin, 2018:82) batetik ekin diot ikerketari: batetik, hanka bat akademian dut, baina beste hanka mugimendu sozialean, euskararen aldeko mugimendu sozialean, hain zuzen ere.

Horrez gain, begirada aktibista ere badu lan honek. Azken finean, aldaketa sozialerako joera dakar eta, gainera, teoria eta praktikaren arteko loturak eta interakzioak nabarmentzen ahalegindu naiz. Eta, amaitzeko, ikerketa mota honek erantzukizuna eskatzen du: batutako datuak egoki erabiltzen saiatu naiz, parte hartu duten guztiei deboluzioa egin diet eta hasieratik argi utzi diet zein den ikerketaren helburua eta zer erabilera izango duten eman didaten informazioa (Biglia, Bonet, Marti, 2016).

Mila ertzeko fenomeno da, esan dudana bezala, euskara elkarteena. Hortaz, mugimendu honi hurreratzeko, ahotsen polifonia aukeratu dut. Euskara elkarteekin mugimenduan aritutakoen eta honen inguruan proposamenak eta ikerketak egin dituztenen ahotsetan oinarritzen da, hein handi batean, ikerketa hau. Ahots horiek esandakoetatik eraiki dut ikerketaren gatzagia. Polifonia hori bideratzen aritu naiz ikerketan zehar, hurrenkera logiko bati jarraituz. Izan ere, iruditzen zait horren mugimendu lokalari tankera hartzeko beharrezkoa zela protagonistei ahotsa ematea, eragileak izan diren horien berbak kontuan hartzea. Eurek eraiki, gidatu, pentsatu eta egin dute elkarteekin zelakotasuna, eurek mamitu dute praxian elkarteekin ekintzak eta helburuak. Beraz, logikoa da protagonista horien

esperientzietatik abiatuta mugimenduaren ekarpenak balioestea, betiere, ahots horiek dakartena bestelako ikerketa, testu eta abarrekin kontrastatuz.

Hortaz, 26 elkarteko kiderekin elkarrizketa sakonak egin ditut. Horretarako, elkarrizketatuen jardura soziokulturala (elkarteetan jokatu duten rola), genero, geografia, elkarteetan jardundako sasoia, elkarteen nolakotasuna eta tamaina izan dira elkarrizketatuak hautatzeko irizpideak. Baina, horrez gain, elkarteetan eraginik handiena izan duten 10 testu nagusiren azterketa egin dut eta elkarteek sortutako dokumentuen gaineko azterketa ere egin dut. Amaieran, galdetegia bidali nien elkarteen inguruan dabilzan adituei eta hortik 16 erantzun etorri zitzaizkidan.

Tokian tokiko ahots eta pertsona horietatik abiatu banaiz ere, ahalegindu naiz fenomenoaren modu ahalik eta holistikoenean azaltzen, ahalegindu naiz fenomenoaren modu globalean aztertzen, tokian tokiko berezitasun eta ezaugarrietatik abiatuta, baina herririk herri egon diren ezaugarri komunei jaramon eginez.

Orain arte gutxi ikertu dela aipatu dut. Eta horrek, hain zuzen ere, behartu nau testuinguratzeko lan handia egitera ikerketaren muinera heldu ahal izateko. Hortaz, lehenik euskara elkartearen inguruko genealogietan arakatu dut eta haien historia taxutu, euskararen aldeko mugimendu sozialaren abaroan taxutu ere. Horren ostean, ahalegindu naiz euskara elkartearen taxonomia egiten (zenbat elkarte izan diren, non errotu diren, zelan sortu diren, zeintzuk izan diren protagonista eta abar aipatuz). Gero elkartearen jarduna bideratu duten zutabe filosofikoak aletu ditut eta, horren ondoren, euskara elkarteek euren buruei ezarritako helburuak aipatu ere aipatu ditut. Azterketaren bosgarren puntuan, elkartearen praxia miatu dut. Horretarako, lehenengo eta behin, egiteko moduak eta funtzionamendua aztertu ditut eta, gero, elkarteek landu dituzten ekintza edo lan-ildo nagusiak banaka arakatu ditut: tokiko hedabideak, kulturgintza, haur eta gazteak, erabilera-programak, (g)uneak, eragite-lana eta jakintza eta diskurtsoaren sozializazioa.

Testuinguratzeko zabal hori egin ostean, ikerketaren troinu nagusira heldu naiz: elkarteek zer ekarpen egin dioten euskararen biziberritzeari. Hor, alde batetik, elkarteek lortutako emaitzen inguruko balorazio orokorretik abiatu naiz euskaldunon komunitatea trinkotzeko eta euskararen erabilera sustatzeko lortu dituzten emaitzetara heltzeko.

Hor amaitu zitekeen ikerketa hau. Baina ez. Ikerketa aktibistaren printzipioek akuilatuta (batez ere, ikerketaren onurak ikertuei ere bideratzen, Flores, 2018:53), elkartearen jarduna eta diskurtsoa hobetzeko proposamen batzuk ere egin ditut. Proposamen apalak eta xumeak beti ere; nire ustez, mugimendu honek baduelako nahikoa heldutasuna beren baitatik proposamenak eta aurrerabideak zehazteko. Baina iruditzen zitzaidan ikerketak ere hori eskatzen zuela. Azken finean, ikerketa ez baitut egin iragana bakarrik ulertzeko: etorkizuna igarri eta aldatzeko baizik.

4. Ondorioak

Euskara elkartearen geometriak, perimetriak, kartografiak, mapak, puntu ilunak eta argiak, denboralerroetan izandako etenak, mutazioak eta haustura-lerroak, egindakoak eta lortutakoak aztertu ostean, hauek izan dira ikerketatik eratorritako ondorioak:

- Euskara elkartearen fenomenoaren zerbaitek ezaugarritu badu, hori tokikotasuna izan da. Euskara elkarteak toki-mailan sortu, garatu, eboluzionatu dira, beti erabakitzearen ahalmen osoa toki-mailan izanda. Hortaz, fenomeno hau oso poliedrikoa izan da. Baina ia hasieratik batera jotzeko ahaleginak egin dituzte elkarteek (nagusienak Topagunearen bidez). Eta ez hori bakarrik. Fenomenoak hainbat ezaugarri komun izan ditu eta, beraz, euskararen aldeko jardunbide eta jokabide zehatz batzuen inguruan berba egin genezake euskara elkartei buruz ari garenean. Izan ere, ideiak eta egiteko moduak elkarri piratatu dituzte elkarteek, trukatzeko saiakerak hainbat izan dira, baita partekatutako gogoetak ere.

- Elkarateak, orokorrean, komunitategintzan aritu dira, komunitate-giroa suspertzen. Elkarteen jardun osoa uler daiteke komunitategintza-ariketa bat bezala, hasi eta amaitu. Jarduteko moduetatik hasita, jarduteko bideetatik jarraituta eta emaitzetan amaituta. Elkarateak aritu dira, hortaz, komunitatea ehuntzen, egituratzen, erreproduzitzen eta txirikordatzen.
- Baina elkarteen helburua hortik harago zihoan. Euren asmoa komunitatea ehuntzeaz gain, komunitate hori trinkotzea zen, euskaldunon komunitatea trinkotzea. Nire ustez, ez dago argi zer ulertu duten elkarateek trinkotzeaz eta ez dago argi ere euskaldunon komunitateaz zer ulertu duten elkarateek. Bi troinu horiek askatu barik, zaila da trinkotze maila neurtzea. Hala ere, badirudi, hasiera batean, elkarateek lortu zutela zelanbait komunitatea trinkotzeko lehen pausoak ematea. Urteen poderioz, baina, egunerokoan kemen hori ahuldu egin dela dirudi, estankatu dela, ez dela izan trinkotzea uste bezain sendoa.
- Hasieran elkarateek nahi izan zuten Txepetxek bere *Un futuro para nuestro pasado* liburuan (Sanchez Carrion, 1987) egindako ekarpen teorikoa praktikan jarri. Egia da, gero, errealitatearen tatamian zailtasunak izan dituztela elkarateek ekarpen hori bere purutasunean aplikatzeko. Esan dudana bezala, hori hasieran izan zen. Badirudi geroago sortutako elkarateek humus filosofiko horretatik baino, beste elkarteen praktikatik elikatu direla gehiago. Hau da, ekintzak kopiatu dituztela atzetik zeuden zutabe filosofikoei jaramon handirik egin barik.
- Elkarateek performatibo jardun dute. Predikatzen dutenaren praktika koherenteen gainean eraiki dira. Eta horrek egin ditu, nire ustez, sinesgarri eta erakargarri. Euskara elkarateak ahalegindu dira hasieratik bizi-eredu aurreratzailerak martxan jartzen. Barne-funtzionamendu osoa euskaraz izan da, baita kanpo-funtzionamendu ia osoa ere, denik eta herririk erdaldunetan ere. Euskaraz egin dituzte batzarrak, euskaraz idatzi aktak, euskaraz agerraldiak eta, kasu askotan, elkarateek behar izan dituzten kontuetarako proaktibo jokatu dute.
- Euskara elkarateak izan dira euskararen aldeko mugimendu sozialera enpresa-kulturaren hainbat elementu ekartzen lehenak. Hasieratik, elkarateek eraginkortasuna bilatu dute eta, horretarako, helburu mailakatuak, epeak, adierazleak, ebaluazioak eta abar modu sistematikoan militantziara ekartzen lehenak izan dira. Horrez gain, hasieratik egitura profesionala eta militantea uztartu dute. Horrek guztiak (eta aniztasuna bilatzea, eta sukalde-lanari lehentasuna ematea salaketa publikoaren aurretik, eta beste batzuk) estilo berria ekarri zuen euskararen aldeko mugimendu sozialera. Eta uste dut urteekin estilo hori gailendu dela mugimenduan. Izan ere, gaur egun gehiago bilatzen da elkarlana, eraginkortasuna, azterketa soziolinguistikoetan oinarritua egiten da lan, eta abar.
- Elkarateek berrikuntza sozialak ekarri dituzte. Lehena, tokiko komunikabideak; bigarrena, elkarateak eta enpresa txikiak euskalduntzeko hitzarmenak (hortik etorriko dira gero lana euskalduntzeko plangintzak); hirugarrena, kafe antzokiak; laugarrena, mintzapraktika-programak eta, bosgarrena aktibazio-programak (hortik etorri da gero Euskaraldia). Gainera, elkarateek esperimentatu dute herri batean, gero zabaldu (bide informaletatik zein formaletatik).
- Elkarateek oihartzuna izan dute jendartearen, batez ere, diskurtsiboki. Eurak izan ziren erabilera erdigunean jarri izan zuten lehenak. Gaur egun, euskararen aldeko mugimenduak zein erakundeek erabileraren garrantzia besarkatu dute. Hala ere, oihartzun hori apala izan dela eta portaera-aldaketa txikiak lortu dituela dirudi. Kontuan hartu behar da elkarateak tokikoak izan direla eta horrek eragotzi du, hein batean, eskalatzea, horrek eragotzi du toki-mailatik kanpora elkarteen proiektzioa.

- Bestelako eragin batzuk bai lortu dituzte jendartearen. Batetik, herrigintzari ekarpena egin diote. Auto-antolaketa eredu zorrotza jarri dute martxan ehun bat herri, auzo edo eskualdetan eta, aurretik esan dudana bezala, militantzia egiteko modu bat esportatu duten han edo hemen. Horrez gain, elkartearen uberan sortu eta loratu dira hainbat iniziatiba.
- Elkarrekin jardun dute, batez ere, funtzioak berreskuratzen. Jardun dute euskararen erabilerari bidezidorrak eraikitzen, dela tokiko komunikabideen bidez, dela kulturagintzaren bidez, dela aktibazio-programen bidez. Euskara elkarteek bilatu dute euskarazko praktikak areagotzea egunerokoan, espazioak sortzen edo irabazten, kasu kasu. Elkarrekin izan dituzte emaitza sustantibo batzuk eta, horien bidez, ahalegindu dira euskararen erabilera eta euskararen hautua elikatzen. Baina ez dute lortu erabileraren “lege” orokorretan eragiterik, ez dute lortu joera orokorrei buelta ematerik.
- Azken ondorioa: amets guztiak ez dira bete, baina ... Euskara elkarteak sortu zituzten amets guztiak ez dira bete, ez dute lortu euskaldunon komunitatea inflexio-puntura eramatea. Gainera, garapen osoa izan duten elkarteak gutxi izan dira. Hala ere ... elkarteak existitu izan ez balira, zer? Elkarrekin lan asko eta askotarikoak egin dituzte eta, existituko ez balira, posible da pentsatzea gaur egungo egoera txarragoa izan zitekeela.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Ikerketaren fase hau momentuz amaituta dago. Hala ere, etorkizunerako nondik jo eta nora jo badago. Izan ere, oso gutxi ikertua izan da fenomeno hau eta pozgarria litzateke beste ikertzaile batzuk ere bide honetan abiatzea. Nire ustez, aztertu beharko lirateke tokian toki elkarteek lortu dituzten emaitzak (adibidez, Basaurin egin dute: Euskarabila eta Ubeda, G., 2020). Horrez gain, aztertu beharko litzateke zehatz Euskaraldiak izan duen eragina. Eta, nire ustez, azkenik, ez legoke txarto egongo mugimendu honetan parte hartu duten pertsonak ere ikertzea: nortzuk izan diren, zerk bultzatuta hasi ziren, zer aldaketak gertatu zaizkie bizitzan horien eraginez, eta abar.

6. Erreferentziak

- Anaut, Dabid (2013). *Euskararen kate hautsiak: hizkuntza zapalkuntzaren memoria*, Euskal Memoria fundazioa, Donostia.
- Berrio-Otxoa, Kontxesi (1998): “Euskararen gizarte-mugimendua eta erabateko kalitatearen filosofia”, in *IV. Euskal Soziologia Kongresua*, Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoaren Elkartea, Bilbo.
- Biglia, Barbara; Bonet, Jordi eta Marti, Marc (2006): “Experiencias y reflexiones de investigación” in Maria Angeles Alio (ed.), *Experiències de col·laboració entre ciutadania i recerca universitària*, Universitat de Barcelona, Bartzelona.
- Emagin (2018). *Ezagutzaren matazak*, Susa, Zarautz.
- Euskarabila eta Ubeda, Garbiñe (2020). *Euskarabilaren ahotsak. Basauriko euskara elkartearen lorratza*, autoedizioa, Basauri.
- Flores, Jose Antonio (2011): “Desarrollando buenas prácticas en revitalización lingüística” in *Antología de textos para la revitalización lingüística*, INALI, Mexiko Hiria.
- Haraway, Donna (1995). *Ciencia, cyborgs y mujeres: la reinención de la naturaleza*, Cátedra, Madril.
- Larrinaga, Ane (2011). *Kulturagintza esparruko eragileen tradizio intelektualak: kulturagileak gizarte mugimenduetan*, Tesiker, Gasteiz.
- Larrinaga, Ane (2017a): “Emozioak ekintza kolektiboan. Emoziozko testuinguruaren bilakaera euskararen aldeko mugimenduan”, *Gogo*, 16, 57-84.

- Larrinaga, Ane (2017b): “Euskararen aldeko mugimenduaren bilakaera. Interpretaziorako proposamen bat”, *Anuario de Eusko Folklore*, 51, 55-84.
- Larrinaga, Ane eta Amurrio, Mila (2016): “The ethno-linguistic movement and linguistic self-determination in euskara”, in P. Ibarra and A. Kolas, (ed.), *Basque nationhood, towards democratic scenario*, Peter Lang, Oxford.
- Rodriguez, Txerra (2020). *30 urte mihigintzan. Euskara elkarteek euskararen biziberritzean izan duten eragina. 1987-2017*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- Sanchez Carrion, Jose Maria “Txepetx” (1987). *Un futuro para nuestro pasado. Claves para la recuperación del euskera y teoría social de las lenguas*, autoedizioa, Donostia.

7. Eskerrak eta oharrak

Lan hau doktoretza tesi batetik eratorri dut, 2020ko ekainean aurkeztu nuen 30 urte mihigintzan (Rodriguez, T., 2020) izenburuko tesian hain zuzen ere. Eskerrak eman nahi nizkioke bereziki tesi horren zuzendari izan den Patxi Juaristiri.